EIBARKO UDALA
www.eibar.eus

# [e]kultura

Eibarko Kultura

Ciudad de la Ciencia y la Innovación

IRAILA 2017 *SEPTIEMBRE*

160



irudia / *imagen*
## Pedaló

musika / *música*
## The Buttshakers

jaiak / *fiestas*
## Arrateko Ama, La Virgen de la Bien Aparecida, Legarre, Agiña

# IRAILA 2017 SEPTIEMBRE


eguna *día* | orr. *pag.*

**1** HARIXA EMOTEN
*CLUB DE LECTURA PARA ADULTOS*
AZALERAKO IPUINAK
**liburutegia *biblioteca*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 8
LIBURUEN POLTSA
PAPEREZKO HEGOAK
**liburutegia *biblioteca*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 9
INDALECIO OJANGUREN
XXX. ARGAZKI LEHIAKETA
"SANANDRESAK EIBARREN" KARTEL LEHIAKETA
**lehiaketak *concursos*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 14
ARTESTURA FEMINISTAK
**lehiaketa *concurso*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 14
UMEAK ESKOLARA 2017-2018
DIRULAGUNTZAK IKASLEEI 2017-2018
**dirulaguntzak *ayudas*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 15
JABETZE ESKOLA
**ikastaroak *cursos*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 17
DIBUJO ETA ZERAMIKA UDAL ESKOLA
UDAL EUSKALTEGIA
AEK EUSKALTEGIA
AFARIKETAN
JAZINTO OLABEKO LUDOTEKA
**matrikulak *matrículas*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 17

**4** XIII. JUAN SAN MARTIN BEKA
**beka *beca*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 9
*OFIMÁTICA GENERAL*
*COMPRAS Y VENTAS SEGURAS POR INTERNET*
*REDES SOCIALES*
*APLICACIONES GOOGLE*
*SISTEMA OPERATIVO ANDROID*
*OFIMÁTICA GENERAL*
*GOOGLE CALENDAR*
*NAVEGAR Y ENVIAR CORREOS ELECTRÓNICOS*
**KZGunea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 16

**5** *GOOGLE DRIVE - FACEBOOK*
**KZGunea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 16

**7** ARRATEKO JAIAK
**jaiak *fiestas*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 10
*SMARTPHONES Y TABLETS*
**KZGunea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 16

**8** ARRATEKO JAIAK
**jaiak *fiestas*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 10

**9** *LA VIRGEN DE LA BIEN APARECIDA*
**jaiak *fiestas*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 11

**10** ARRATEKO JAIAK
**jaiak *fiestas*** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 10

**11** *TWITTER - WIKIPEDIA*
**KZGunea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 16


ostirala **1** viernes



**AZALERAKO IPUINAK**
liburutegia - *biblioteca*

ostirala **1** viernes



**PAPEREZKO HEGOAK**
liburutegia - *biblioteca*

osteguna **7** jueves



**ARRATEKO JAIAK**

larunbata **9** sábado



***LA VIRGEN DE LA BIEN APARECIDA***

asteartea **19** martes



**PEDALEI ERAGITEN 50eko HAMARKADAN**
erakusketa - *exposición*

osteguna **21** jueves




**PEDALÓ**
irudia - *imagen*

larunbata **23** sábado



**THE BUTTSHAKERS**
musika - *música*

igandea **24** domingo



**CIELITO musika banda**

ostirala **1** viernes



## ARTESTURA FEMINISTAK
ikastaroa - *curso*

astelehena **4** lunes



## XIII. JUAN SAN MARTIN BEKA

igandea **17** domingo



## ARRATE IZENEKOEN JAIAREN XXI. URTEURRENA

astelehena **18** lunes



## *INICIACIÓN A LA FOTOGRAFÍA DIGITAL*
ikastaroa - *curso*

ostirala **22** viernes



## MITXOLETAK - *AMAPOLAS*
erakusketa - *exposición*

ostirala **22** viernes



## LEGARREKO JAIAK

osteguna **28** jueves



## AGIÑAKO JAIAK

ostirala **29** viernes




## FORJARIEN KANTA
musika - *música*

## IRAILA 2017 *SEPTIEMBRE*

eguna / *día* — orr. / *pag.*

**17** ARRATE IZENEKOEN JAIAREN XXI. URTEURRENA
**jaiak** ***fiestas*** . . . . . 11
*LA VIRGEN DE LA BIEN APARECIDA*
**jaiak** ***fiestas*** . . . . . 11

**18** *INICIACIÓN A LA FOTOGRAFÍA DIGITAL*
**ikastaroa** ***curso*** . . . . . 16
*APLICACIONES GOOGLE*
**KZGunea** . . . . . 16

**19** PEDALEI ERAGITEN 50eko HAMARKADAN
*PEDALEANDO EN LOS AÑOS 50*
**museoa** ***museo*** . . . . . 13
*RETOQUE FOTOGRÁFICO CON GIMP*
**KZGunea** . . . . . 16

**21** PEDALÓ
**irudia** ***imagen*** . . . . . 20

**22** MITXOLETAK - *AMAPOLAS*
**erakusketa** ***exposición*** . . . . . 5
LEGARREKO JAIAK
**jaiak** ***fiestas*** . . . . . 12

**23** THE BUTTSHAKERS
**musika** ***música*** . . . . . 6
*LA VIRGEN DE LA BIEN APARECIDA*
**jaiak** ***fiestas*** . . . . . 11
LEGARREKO JAIAK
**jaiak** ***fiestas*** . . . . . 12

**24** *banda de música* CIELITO musika banda
**musika** ***música*** . . . . . 7

**25** *FACEBOOK - PINTEREST*
**KZGunea** . . . . . 16

**26** *LIBREOFFICE WRITER*
**KZGunea** . . . . . 16

**28** AGIÑAKO JAIAK
**jaiak** ***fiestas*** . . . . . 12

**29** FORJARIEN KANTA
**musika** ***música*** . . . . . 7
AGIÑAKO JAIAK
**jaiak** ***fiestas*** . . . . . 12
*GOOGLE MAPS. PLANIFICA LA MEJOR RUTA*
**KZGunea** . . . . . 16

**30** AGIÑAKO JAIAK
**jaiak** ***fiestas*** . . . . . 12

## URRIA 2017 *OCTUBRE*

**1** AGIÑAKO JAIAK
**jaiak** ***fiestas*** . . . . . 12

# *teatro* COLISEO antzokia

**zine egitaraua** **iraila** - ***septiembre*** ***programa de cine***




**CHURCHIL**




**EMOJI: LA PELICULA**




**ALI Y NINO**




**TADEO JONES 2: EL SECRETO DEL REY MIDAS**




**LA NIEBLA Y LA DONCELLA**




**KINGSMAN: EL CÍRCULO DE ORO**




**GATOS. UN VIAJE DE VUELTA A CASA**




**BARRY SEAL: EL TRAFICANTE**




**AIDA OPERA ON SYDNEY HARBOUR**




**OPERACIÓN CONCHA**




**L'ODYSSEY**

COLISEOaren laguna -30% deskontua

**SARRERAK** ***ENTRADAS***

arrunta/*normal*. . . . . . . . . . 5,50 €
3 D . . . . . . . . . . 6,50 €

igandeko 17:00etako haurren saioa
*sesión infantil del domingo a las 17:00*. . . . . . . . 4,00 €

astelehena ikuslearen eguna
*lunes día del espectador*
arrunta/*normal*. . . . . . . . . . 4,00 €
3 D . . . . . . . . . . 5,00 €

EGITARAUAN ALDAKETAK EGON DAIZTEKE.
ORDUTEGI ETA ARETOEI BURUZKO INFORMAZIOA KARTELERAN

*PROGRAMACIÓN SUJETA A CAMBIOS.*
*PARA HORARIOS Y SALAS CONSULTAR CARTELERA*

**sarreren aldez aurreko salmenta** - ***venta anticipada de entradas***

**astelehena eta ostirala** **17:30 - 19:30** ***lunes y viernes***

**http://www.eibar.eus/es/cultura/coliseo/venta-anticipada?set_language=es**

# MITXOLETAK *AMAPOLAS*

**FITO R. ESCUDERO**

**irailak 22 *septiembre* - urriak 15 *octubre* PORTALEA**

asteartea - igandea 18:30 - 20:30 *martes - domingo*

“Nire praktika piktorikoaz hitz egiteko orduan, uste dut sentsazioei buruz hitz egin beharko nukeela, agindu eta afektuez osatuta dauden **sentsazioei buruz**, kontzeptuei buruz baino gehiago.

Nire pinturari buruzko azterketa bat egin beharrean, egokiago deritzot **harremanez** hitz egiteari, egintza piktorikoaren beraren barneko **asoziazioez**; pinturaz hitz egin beharrean, pinturak egiten duenaz edo pinturak egiten digunaz hitz egin. Hala ere, nire kasu partikularrean, pinturak beste ezer baino gehiago “desegin” egiten nau”.



*“A la hora de hablar de mi práctica pictórica, creo que debería de hacerlo de sensaciones, **sensaciones** compuestas de preceptos y afectos más que de conceptos en sí mismos.*

*Más que hacer un análisis de mi pintura creo más adecuado hablar de **relaciones, asociaciones** dentro del propio acto pictórico; más que hablar de pintura, hablar de lo que la pintura hace y lo que la pintura nos hace. Aunque, particularmente creo que, en mi caso, la pintura más bien me “deshace”.*

*De esta forma, a la hora de relacionar mi pintura con algo la relacionaría con dos cosas que tienen ese algo de **flujo vital del acto pictórico** con el que me identifico. Con las sensaciones en general y la **pasión** en particular, con toda esa gama de sucesos irracionales que ocurren, a veces, en el acto pictórico, con esa especie de lógica paradójica basada en analogías y contradicciones de la que hablan algunos autores.*



*Por un lado, entonces las **sensaciones**. Pinto, como otros muchos pintores/as, sensaciones y pinto con sensaciones. Creo que en general todos nosotros podemos ser una especie de receptáculo de sensaciones. A veces es el punto de partida de un proyecto artístico. Aunque este varíe en el propio proceso, puede ser una especie de principio organizativo.*

*Si esas sensaciones pueden estar en el origen o la causa de mi proceso creador, a esas sensaciones le doy, quiera o no, un cierto sesgo, un sesgo, que creo que es consecuencia, tiene que ver, con la mayor o menor pasión que ponga o sienta en la realización de una obra.*

*Por otra parte, la **pasión** no significa, creo yo, deseo, amor, goce, sino algo más ambivalente. Nos dicen que la pasión quiere un imposible, la pasión produce insatisfacción, padecimiento e infelicidad pero todo ello no como una imperfección o una carencia o una falta. Esta imperfección puede ser sentida como “suma perfección y maravilla”, puede llegar a tener un estatuto reflexivo. Lo que menos puede llegar a querer es satisfacerse. Lo que quiere es retroalimentarse. Y ese sujeto pasional, que es lo que puede ser un pintor (como yo o cualquier otro) en relación a su obra, puede llegar a tener un poder fundacional, una base firme, una premisa, un orden estético, con el que abordar el acto artístico, y en mi caso concreto el pictórico. Pues eso”.*

*Fito R. Escudero*

# THE BUTTSHAKERS

**kontzertua** ***concierto***

**irailak 23** ***septiembre*** 20:30 10 € 7 € COLISEOAREN LAGUNA ***teatro*** **COLISEO antzokia**



**Ciara Thompson** delako riot-girl erakargarri eta karismadunaren ahots liluragarria buru dutela, **Buttshakers** taldea bere bide propioa sortzen dago.

**Rhythm & Blues** gordin, heze eta epela erabiltzen dute hainbeste maite duten soul musikaren esentziarekin. **Garaje dosiek eta daukaten sex-appeal** izugarriak euren abestiak bero kolpe indartsu baten pare bilakatzen dituzte.

2011an "**Headaches & Heartache"s** lehen albuma kaleratu ostean, taldea ezagun egin zen eta Frantziako errepideetan barrena jardun zuten gelditu gabe. 2013an Hanburgoko (Alemania) Yeah Yeah Yeah Estudioan grabatutako "**Wicked Woman"** EP-a argitaratu zuten, Copasedisques zigiluarekin. Horrela, zigilu berdin honen eskutik iritsi zen 2014an taldearen bigarren diska, "**Night Shift"** deiturikoa. Beti ere maila handiko soularekin, azken lanak onenen pare jartzen ditu: **Sharon Jones, The Sweet Vandals, Charles Bradley, James Brown…**

*Liderados por la energía y la voz hechizante de la seductora y carismática riot-girl* ***Ciara Thompson****, los* ***Buttshakers*** *están creando su propio camino a base de cálido, húmedo y crudo rhythm and blues con esencia de lo mejor de la música soul que tanto aman.*

***Rhythm & Blues, dosis de garaje, y un gran sex-appeal*** *hacen que sus canciones sean como potentes golpes de calor , convirtiendo sus espectáculos en una caliente y furibunda pista de baile.*

*Después de su primer álbum en 2011, "****Headaches & Heartaches"*** *, que sirve para descubrir a la banda y les lleva a recorrer de arriba abajo las carreteras francesas y un EP llamado "****Wicked Woman"*** *en 2013, grabado en el Yeah Yeah Yeah Estudio en Hamburgo (Alemania) con el sello CopaseDisques,* ***Los Buttshakers*** *lanzaron su segundo álbum llamado* ***"Night Shift"*** *en 2014 en Alemania con Copasedisques, siempre con* ***soul de alta graduación****. Este álbum recuerda lo mejor de* ***Sharon Jones, The Sweet Vandals, Charles Bradley, James Brown …***



## *BANDA DE MÚSICA*
## CIELITO
## MUSIKA BANDA

**kontzertua** ***concierto***

**irailak 24 *septiembre*** 12:30

***teatro* COLISEO antzokia**

## FORJARIEN BANDA

**Eibarko Koru Gaztea –Forjarien Banda**

**irailak 29 *septiembre*** 20:30 8 € 6 € COLISEOAREN LAGUNA ***teatro* COLISEO antzokia**




Eibar, 80. hamarkada. Enpresaren errentagarritasunean sinesten jarraitzen duten langileak irtenbide bat bilatzen ari dira langabezia mehatxuaren aurrean.
Lortuko al dute soluzioren bat kale gorrian gelditu aurretik?
**Eibarko Koru Gazteak** eta **Forjarien Banda**, **Musikene**ko ikasleek osatua, **eibartarron izpiritua islatzen duen musikal** bat eskaintzen digute, eta gainera zenbait abesti ezagun erreskatatuko dira.

*Eibar, años 80….. trabajadores y trabajadoras, que insisten en la rentabilidad de la empresa, buscan una solución ante la amenaza del desempleo.*

*¿Lograrán encontrar la solución antes de quedarse en la calle?*

*En esta ocasión **Eibarko Koru Gaztea** y **Forjarien Banda**, formada por estudiantes de **Musikene**, nos ofrecen un **musica**l que refleja el **espíritu de los eibarreses y eibarresas**, en el que se rescatan algunas de las canciones más conocidas de algunos de los musicales más celebrados.*

## HARIXA EMOTEN: euskarazko irakurle taldea




**33 EZKIL**
**Miren Gorrotxategi**
**urriak 3**

Jarduera honetan **hilean behin, astearteetan**, i**dazleak** bere liburua irakurri duten irakurleei haren gaineko ideiak, esperientziak eta bizipenak elkartrukatzeko aukera eskainiko die, aurrez aurreko solasaldien bitartez.

**Antxon Narbaiza**ren laguntza izango dugu ere liburuaren mamia ateratzeko. ***...eta kitto! Euskara Elkartea****rekin* elkarlanean egingo dira saioak.

- **PORTALEAn**, 19:00etatik 20:00etara.
- **20 plaza**.
- **16 urtetik gorakoentzat**.
- **jarduera dohainik**.
- **euskaraz**.
- **izen-ematea**: **irailaren 1etik 7ra arte**, **Juan San Martín Liburutegian** (bertan, telefonoz edo emailez).

## *CLUB DE LECTURA PARA ADULTOS*




***LA DAMA DEL PERRITO***
**A. Chekhov**
**10 de octubre**




***¿CUÁNTA TIERRA NECESITA UN HOMBRE?***
**L. Tolstoi**
**10 de octubre**

***Reuniones mensuales, los segundos martes de cada mes, para comentar libros previamente seleccionados.***

*Estas reuniones están coordinadas y dinamizadas por* ***Peru Magdalena,*** *que guiará a los participantes en la lectura de estos libros.*

- *En* ***PORTALEA****, de 19:00 a 20:00 horas.*
- ***20 plazas****.*
- ***mayores de 16 años****.*
- ***actividad gratuita****.*
- ***en castellano****.*
- ***inscripción: 1 al 15 de septiembre*** *en la* ***Biblioteca Juan San Martín*** *(presencial, por teléfono o por email).*

## AZALERAKO IPUINAK

**umeen irakurketa kluba** - ***club de lectura infantil***



Entzumena, kontaktua, ikusmena, usaimena eta dastamena literaturara ate ireki bat izan dadila da helburua. Abesti, ipuin laburrak, hitz jokoak, poemak… berreskuratuko dira eta azalerako ipuinetan erabiliko dira, liburuak eskaintzen dituzten baliabideak ezagutuz. **Saroa Bikand**iren eskutik.

- **norentzat**: Urte bateko umeak eta Haur Hezkuntzako 2 eta 3 urteko gelako umeak, amak edo aitak lagunduta.
- **noiz**: **urriak 2, azaroak 13, abenduak 11, urtarrilak 22, otsailak 19, martxoak 5, apirilak 9, maiatzak 7**
- **umeen liburutegian** 17:00etatik 17:45era.
- **12 plaza**.
- **jarduera dohainik**.
- **euskaraz**.
- **izen-ematea: irailaren 1etik 15era Juan San Martín Liburutegian**.

## LIBURUEN POLTSA



**umeen irakurketa kluba** - ***club de lectura infantil***

Irakurketa kluba suspertzea irakurzaletasuna eta liburuekiko atxikimendua sortzeko ahaleginak egiten, jokoen eta dinamiken bitartez, umeen nahiak, interesak eta fantasia pertsonalak abiaburutzat hartuta da helburua.

**Saroa Bikand**iren eskutik

- **norentzat: Bi talde egingo dira:**
  - **1,** Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko gelak
  - **2**, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako umeak, amak edo aitak lagunduta.
- **noiz: urriak 2, azaroak 13, abenduak 11, urtarrilak 22, otsailak 19, martxoak 5, apirilak 9, maiatzak 7**
- **umeen liburutegian:**
  lehenengo taldea 18:00 – 19:00
  bigarren taldea: 19:00 – 20:00
- **12 plaza**
- **jarduera dohainik.**
- **euskaraz**.
- **izen-ematea: irailaren 1etik 15era Juan San Martín Liburutegian**.

## PAPEREZKO HEGOAK: LIBURUETAKO HITZETATIK AIRERATU ETA HEGAN EGIN!

**ume eta gaztetxoen irakurle kluba** ***club de lectura para niños/as y jóvenes***

"**Paperezko hegoak**" izeneko irakurketa klubak **tailer** bilakatzen ditugu, eta saio bakoitzean irakurritakoa taldeko solasaldiaz lantzeaz gain, sorkuntza ariketa bat gehitzen diogu. Urte bukaeran, hilabetero egindako ariketa bakoitzarekin **liburu bat** egiten dugu, eta gurasoen aurrean aurkezpen bat egin dezakegu. Liburu bana eramango du haur bakoitzak etxera.




**Peru Magdalena**ren eskutik.

- **norentzat:** LHko 3. mailatik 6. mailara. Interesa erakusten dutenen adinen arabera osatuko da taldea eta antzerakoa izan dadila saiatuko gara.
- **noiz:** hilero, **urriaren 18an** hasiko da.
- **PORTALEAn**, 17:00etatik 18:00etara.
- **12 plaza**.
- **jarduera dohainik**.
- **euskaraz**.
- **izen-ematea: irailaren 1etik 15era**, **Juan San Martín Liburutegian** (bertan, telefonoz edo emailez).

**biblioteca JUAN SAN MARTÍN liburutegia** tel. 943 70 84 37 liburutegia@eibar.eus

**BEKA** *BEKA*

## XIII. JUAN SAN MARTIN BEKA 2017




**Dei-egilea: Eibarko Udala, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzarekin**.

Beka honen bidez **Juan San Martin**ek bere bizitzan zehar landu zituen gaiak ikertu nahi dira.

2017ko deialdian **ARKEOLOGIA** izango da bekaren ikerketa-lanaren gaia.

**SARIA: 9000 €**

| | | |
|---|---|---|
| informazioa | **PEGORA** | *información* |
| epea | **irailak 4 - urriak 11** | *plazo* |

# ARRATEKO AMAREN JAIAK
# *FIESTAS de Ntra. Sra. de ARRATE*

**irailak 7, 8, 10 *septiembre***



**Irailak 7, Arrate bezpera-*Víspera de Arrate***

- 18:00. **Meza** Arrateko Santutegian, eta ondoren, **Salbea**.
  Jarraian, **txupinazoa eta kanpai errepika**.
  ***Misa*** *en el Santuario de Arrate y* ***Salve****.*
  *A continuación,* ***chupinazo y volteo de campanas****.*
- 19:00. **Herri kirolak**. ***Deporte rural****.*
- 21:00. **Bertso Afaria: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Sebastian Lizaso eta Onintza Enbeita.** Gaijartzailea: **Jon Mikel Mujika**.
  Kantabria jatetxean. Sarrerak: 32 €.
  (Sagarbitxa - Kultu – Kantabria jatetxea).
  Antolatzailea: "... eta kitto!".
- 22:30. **Rock kontzertua** txosnen eskutik.
  ***Concierto rock*** *a cargo de las txosnas.*

**Irailak 8, Arrate eguna- *Día de Arrate***

- 10:00. Azitaingo surtidoretik irten eta **Arratera igoera**, Ama Birjinaren pausoen bide zaharretik. **Salda, txorizoa eta ardoa** banatuko dituzte Zesteroko iturrian Jai Batzordeak antolaturik.
  ***Subida a Arrate*** *desde Azitain, por el camino de los pasos de la Virgen. Reparto de* ***caldo, chorizo y vino*** *en la fuente de Zestero organizado por la Comisión de fiestas.*
- 10:00. **Kittonbola!**
- 10:30. **Kalejira** Eibarko Usartza Txistulari taldearen eskutik.
  ***Pasacalle*** *con la Banda de Txistularis Usartza.*
- 11:00. **Meza Nagusia** Arrateko Santutegian. Kezka dantza taldeak eta Usartza Udal Txistulari taldeak **Arrateko Amaren ezpata-dantza** egingo dute. Ondoren Arrateko Amaren **prozesioa** Usartza Txistulari taldeak, Jainaga eta Narbaiza trikitilariak, Kezka Dantza Taldeak, bertsolariek eta agintariek lagundurik. **Arrateko Amaren ezpata-dantza** egingo dute.
  ***Misa Mayor*** *en el Santuario de Arrate y ezpata-dantza de la Virgen de Arrate. A continuación,* ***procesión*** *con la Banda de Txistularis Usartza,los trikitilaris Jainaga y Narbaiza, Kezka Dantza Taldea, bertsolaris y autoridades* ***y ezpata-dantza de la Virgen de Arrate****.*
- 12:30. Kezka Dantza Taldeak eta Usartza Udal Txistulari Taldeak **Arrateko Amaren Dantzak** aurkeztuko dituzte zelaian.
  ***Danzas de la Virgen de Arrate*** *con Kezka Dantza Taldea y la Banda de Txistularis Usartza en la campa de Arrate.*
- 13:30. **Trikitilari eta bertsolarien saioa**.
  *Actuación de* ***trikitilaris y bertsolaris****.*
- 17:00. **Bertsolarien saioa**.
  *Actuación de* ***bertsolaris****.*
- 17:00. **Arrateko Amaren Hiru Txirlo Saria**.
  Antolatzailea: Asola Berri Elkartea
  ***Campeonato de Hiru Txirlo Premio Arrateko Ama****. Organiza: Sociedad Asola Berri.*
- 17:30 - 20:30. ***BETE ZAITEZ…BAINA EMOZIOZ!*** **Alkoholaren inguruko kanpaina informatzaile eta hezitzailea.** Sasoia elkarteak ( Osasun heziketa eta drogamenpekotasunen prebentzioa) alkoholemia kontrolak egingo ditu. Antolatzaileak: Eibarko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta mendekotasunen Zuzendaritza.
  ***LLENATE…¡PERO DE EMOCION! Campaña informativa y educativa sobre el consumo de alcohol****. Sasoia Elkartea (Educación para la salud y prevención de drogodependencias) realizará pruebas de alcoholemia. Organiza: Ayuntamiento de Eibar y Dirección de Salud Pública y adicciones del Gobierno Vasco.*



- 17:30. **Dantza solte txapelketa.** 10 bikote onartuko dira, aldez aurretik gonbidatuak (bost 15 urtetik gorakoak eta beste bost beherakoak).
  ***Concurso de baile al suelto.*** *10 parejas, por invitación.(5 mayores y 5 menores de 15 años).*
- 18:30 - 21:00. **Dantzaldia Luharts** taldearekin.
  ***Verbena*** *con el grupo* **Luharts**.
  Jarraian, **Rock kontzertua** txosnen eskutik.
  *A continuación,* ***concierto rock*** *a cargo de las txosnas*.

### Irailak 10, Kofradia eguna eta baserritar jubilatuen eguna
### *Día de la Cofradía y de los jubilados y jubiladas*

- 10:30. **Simón Aldazabal XXII. Antxitxiketaldia**.
  Eibarko Klub Deportibotik irten eta Arrateraino (Orbeko bidetik).
  ***XXII Carrera pedestre Simón Aldazabal***.
  *Salida en el Club Deportivo y subida hasta Arrate por el camino de Orbe.*
- 11:00. **Meza Nagusia** bertsolariekin eta Arrateko ezpata-dantzariekin. Ondoren prozesiso Usartza Txistulari Bandak lagunduta.
  ***Misa Mayor*** **con bertsolaris y ezpata-danza de Arrate. A continuación procesión acompañada por la Banda de Txistularis Usartza**.
- 12:00. **Paella lehiaketa**.
  ***Concurso de paella***.
- 14:00. **Paella lehiaketaren sari banaketa**.
  ***Entrega de premios del concurso de paella***.
- 17:30. **Idi probak**.
  ***Pruebas de bueyes***.

antolatzailea **Eibarko Udala** *organiza*
laguntzaileak **Andirao Elkartea, "... eta kitto!"** *colaboran*
**Asola Berri Elkartea, Betikuak, Eibarko Klub Deportiboa**
**Kezka Dantza Taldea – Atletismo Batzordea**

## ARRATE IZENEZKOEN JAIAREN XXI. URTEURRENA
## *XXI FIESTA DE LAS ARRATES*

**irailak 17** ***septiembre***



**Arratera igoera Ama Birginaren pausoen bide zaharretik, meza, bazkaria, jolasak eta dantzaldia**.

***Subida a Arrate*** *por el camino de los pasos de la Virgen, misa, comida, juegos y baile.*

## *LA VIRGEN DE LA BIEN APARECIDA*

**irailak 9 - 17 - 23** ***septiembre***



### irailak 9 *septiembre*

- 10:00. ***Torneo de fútbol "La Bien Aparecida"*** *en el anexo de Ipurua.*
- 16:30. *En la bolera de Ipurua* ***campeonatos sociales de toca y rana***.

### irailak 17 *septiembre*

- 12:00. ***Misa*** *en la parroquia de San Andrés.*
- 13:00. ***Piscolabis*** *para socios, socias y simpatizantes en Jardiñeta.*

### irailak 23 *septiembre*

- 20:00. ***Actuación del coro Voces de Alfo(Loredo) en la iglesia de San Pio X***.
- *21:00.-* ***piscolabis*** *para socios, socias y simpatizantes en la bolera de Ipurua.*

antolatzailea **Casa de Cantabria** *organiza*

# LEGARREKO JAIAK - *FIESTAS DE LEGARRE*

**iraila 22 - 23 *septiembre***

**irailak 22 *septiembre***

- 19:30. Txosna irekiera eta **umeentzat jolasak**.
  *Apertura de la txosna y **juegos infantiles***.
- 20:30. **Tortilla txapelketa**.
  ***Concurso de tortillas***.
- 21:00. Auzoko gaztetxoentzat **afaria**.
  ***Cena** de la juventud del barrio.*
- 22:00. **Zumba** Saioa.
  *Sesión de **zumba***.
- 23:00. **Musika**, "lokaletik plazara".

**irailak 23 *septiembre***

- 11:30. **Legarreko II. Kronoeskilara**.
  ***II Cronoescalera de Legarre***.
- 13:30. **Pintxopoteoa** trikitilari eta buruhundiekin.
  ***Pintxopote** con trikitilaris y cabezudos.*



- 14:30. Auzo **bazkaria** Biziminaren eskutik.
  ***Comida** popular.*
- 16:00. Bazkalosteko musika. **DJ Arno**.
  *Animación con **DJ Arno***.
- 17:00. **Umeen ikusizuna**. Antxo eta Pantxaren **"Museoaren taupadak"**.
  ***"Museoaren taupadak". Espectáculo infantil** con Antxo eta Pantxa.*
- 18:30. **Txokolatada**.
- 19:30. **Kalejira** buruhaundiekin eta **Mugi panderoa**rekin.
  ***Pasacalle** con cabezudos animado por **Mugi panderoa***.
- 20:00. **Erromeria Mugi Panderoa**rekin.
- 22:30. **Kontzertua: Oso Basatis - The Rockos**.

antolatzailea **Arrajolape Kultur Elkartea** *organiza*

# AGIÑAko JAIAK - *FIESTAS DE AGINAGA*

**irailak 28 - 29 . 30 *septiembre* - urriak 1 *octubre***



**irailak 28 *septiembre***
**San Miguel bezpera - *Víspera de San Miguel***

- 18:00. **Kanpai iraulketa**.
  ***Volteo de campanas***.

**irailak 29 *septiembre***
**San Miguel eguna - *Día de San Miguel***

- 11:00. **Meza nagusia** Usartza txistulari bandarekin.
  ***Misa mayor** con la banda de Txistularis Usartza.*
- 12:00. **Lunch-a eta umeendako jolasak**.
  ***Lunch y juegos infantiles***.
- 14:00. **Lagunarteko bazkaria** Usartza txistulari bandarekin.
  ***Comida popular** con la banda de Txistularis Usartza.*

**irailak 30 *septiembre***

- 17:00. **Umeendako jolasak** eta **txokolate jana**
  ***Juegos infantiles** y **chocolatada***.
- 17:00. Taldeko **GIZA PROBA**. Taldeko **GIZA PROBA**.
  2 talde, neska eta mutil.
- 21:00. **Lagunarteko afaria**.
  ***Cena de hermandad***.
- 23:00. **Erromeria, KUPELA taldearekin**.
  Goizaldera, **txokolate jana**.
  ***Romería, con el grupo KUPELA***.
  *De madrugada, **chocolatada***.

**urriak 1 *octubre***

- 11:00. **Meza nagusia eta hamarretakoa**.
  ***Misa mayor** y **piscolabis***.
- 12:30. **Gorriti**-ren abereak.
  ***Gorriti** y sus animales.*
- 14:30. **Paella jana herrikoia** trikitilariekin alaituta.
  ***Paellada popular** con trikitilaris.*
- 17:00. **Briska txapelketa.** Jaiei amaiera emateko **zozketa**.
  ***Campeonato de brisca. Sorteo** y **fín de fiesta***.

antolatzailea **Agiña Elkartea** *organiza*

## MUGIKORTASUNAREN EUROPAKO ASTEA
## *SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD*

Europako Batzordeak **Mugikortasunaren Europako Astea 2017** ospatzeko aukeratu duen gaia **mugikortasun garbi, partekatu eta adimentsuan** zentratuta dago eta lema da **Partekatzeak urrutiago eramaten zaitu!** Goiburu horrekin Europako Batasunak animatzen gaitu konpartitutako mugikortasuna sustatzera eta garraiobide garbien onurak azpimarratzera, garraio adimentsuaren teknologietan bermatuta. Orobat, animatzen gaitu irailaren 22an izango den "autorik gabeko egunean" parte hartzera. **Eibarko Udalak** bat egingo du aurten ere ekimen honekin **Armagintzaren Museoa**k hartuko duen **erakusketa**ren bitartez.

*El tema elegido este año por la Comisión Europea para la celebración de la **Semana Europea de la Movilidad 2017** está centrado en la **movilidad limpia, compartida e inteligente** y el lema es: **¡Compartir te lleva más lejos!**.. Con este lema la Unión Europea nos anima a fomentar soluciones de movilidad compartida y destacar los beneficios de modos de transporte más limpios, apoyándonos en las tecnologías de transporte inteligente. Asimismo nos invita a participar en "el día sin coches" que se celebra el 22 de septiembre. El **Ayuntamiento de Eibar** se suma un año más a este evento con una **exposición** en el **Museo de la Industria Armera**.*





## PEDALEI ERAGITEN 50eko HAMARKADAN
## *PEDALEANDO EN LOS AÑOS 50*

**irailak 19 *septiembre* - urriak 1 *octubre*   Armagintzaren Museoa - *Museo de la Industria Armera***

**Eibarren egindako 50eko hamarkadako bizikleten erakusketa.**
***Muestra de bicicletas de los años 50 fabricadas en Eibar.***

Aldi baterako erakusketa honetan, besteak beste, marka hauek ikusi ahal izango dira: **B.H. Orbea, G.A.C. Super Cil, Fenix, Iberia, Saeta, Invicta, Teide, Ciclos Mendi, Gamma, Ciclos Sabel Borty** eta **Norma.** Honela, bere fondoak osatzeko Eibarko Udalak erosi berri dituen bizikleten bildumaren parte bat erakutsi ahal izango da.

***B.H. Orbea, G.A.C. Super Cil, Fenix, Iberia, Saeta, Invicta, Teide, Ciclos Mendi, Gamma, Ciclos Sabel Borty, Norma** son algunos de las marcas que conforman esta exposición temporal. De esta manera se da conocer una parte de la colección de bicicletas recién adquirida por el Ayuntamiento de Eibar para completar sus fondos.*

# INDALECIO OJANGUREN XXX. ARGAZKI LEHIAKETA
# *XXX CERTAMEN DE FOTOGRAFÍA INDALECIO OJANGUREN*




**08/2017 ARGIZAIOLA LEHIAKETAREN SAILKAPENERAKO BALIAGARRIA**
Euskal Herriko Argazkilaritza Federazioaren Sariak Euskal Herriko argazkilariei.

***CLASIFICATORIO PARA EL CERTAMEN ARGIZAIOLA 08/2017***
*Premios de la Federación Vasca de Fotografía a los fotógrafos vascos.*

| **EGUTEGIA** | | ***CALENDARIO*** |
|---|---|---|
| lanak aurkezteko epea | **urriak 5 *octubre*** | *plazo de admisión de obras* |
| erabakia | **urriak 14 *octubre*** | *fallo público* |
| sari-banaketa | **urriak 27 *octubre*** | *entrega de premios* |
| erakusketa | **urriak 27 *octubre* - azaroak 19 *noviembre*** | *exposición* |

**informazioa** **PORTALEA** ***información***
**www.eibar.eus**

# “SANANDRESAK EIBARREN” KARTEL LEHIAKETA
# *CONCURSO DE CARTEL “SANANDRESAK EIBARREN”*

| **2017ko deialdia** | | ***convocatoria 2017*** |
|---|---|---|
| lanak aurkezteko epea | **urriak 13 *octubre*** | *plazo de admisión de obras* |
| **informazioa** | **PEGORA** | ***información*** |







# *concurso* ARTESURA FEMINISTAK lehiaketa



**Emakumeei zuzendutako lehiaketa da, estrategikotzat jotzenbaita emakumeek egindako sormen eta produkzio artistikoa sustatzea.**

***Dirigido a mujeres con el objetivo de impulsar la creación y producción artístico feminista de las mujeres.***

lanak aurkezteko epea **irailak 29 *septiembre*** *plazo de presentación de trabajos*

**informazioa** ***información***
**ANDRETXEA** Zezenbide kalea, 9 - 943700828 - andretxea@gmail.com
**PEGORA** **www.eibar.eus**

antolatzailea **Emakumeen Etxeen Sarea - *Red de Casas de las Mujeres*** *organiza*

## UMEAK ESKOLARA 2017-2018

ONURADUNAK: **2002ko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra bitartean jaiotako umeak. Eibarren etengabe erroldatuta** egotea 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko maiatzaren 31ra bitartean.

*BENEFICIARIOS: **niños y niñas empadronados en Eibar** de forma ininterrumpida desde el 1 de enero de 2017 al 31 de mayo del 2017 **y nacidos entre el 1 de enero de 2002 y el 31 de diciembre de 2015**.*

LAGUNTZAREN ZENBATEKOA - *CUANTÍA*: gehieneko **60,10 €**

## DIRULAGUNTZAK IKASLEEI 2017 - 2018
## *AYUDAS A ESTUDIANTES*

ONURADUNAK: **Irakaskuntza arautuko edo lanbide-hezkuntza alorreko ikaslea izatea. 1992ko urtarrilaren 1etik 2001eko abenduaren 31ra bitartean jaiotakoa izatea eta Eibarren, 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko maiatzaren 31ra bitartean etengabe erroldatuta egotea.**

*BENEFICIARIOS: **estudiantes que se hallen cursando estudios de enseñanzas regladas u ocupacionales nacid@s entre el 1 de enero de 1992 y el 31 de diciembre de 2001 y que estén empadronados/as en Eibar** de forma ininterrumpida desde el 1 de enero de 2017 al 31 de mayo de 2017.*

LAGUNTZAREN ZENBATEKOA - *CUANTÍA*: gehieneko **60,10 €**

**LAGUNTZAREN ZERTARAKOA:** Eskolarako behar duen materiala erosteko –liburuak izan ezik-, hau da: kirol materiala, erropa, oinetakoak, informatikako materiala, betaurrekoak eta lentilak. **Erosketa horiek, derrigorrez, Eibarko dendetan egin behar dira.**

***DESTINO DE LA AYUDA:** Adquisición de material escolar -excepto libros de texto-, material deportivo, ropa, calzado, gafas y lentillas. **Es requisito indispensable que la compra de estos artículos se realice en establecimientos comerciales de nuestra localidad.***

EPEA — **irailak 1 *septiembre* - urriak 31 *octubre*** — *PLAZO*

AURKEZTEKO TOKIA — **EIBARKO MERKATAL GUNE IREKIA** — *LUGAR DE PRESENTACIÓN*

*EIBAR CENTRO COMERCIAL ABIERTO*

Untzaga Plaza, 7 bajo 3

**irailak 1 - 15 *septiembre***

astelehena - ostirala — 08:00 - 14:00 — *lunes - viernes*

**irailak 18 *septiembre* - urriak 31 *octubre***

astelehena - osteguna — 09:00 - 14:00 / 16:00 - 18:30 — *lunes - jueves*

ostirala — 08:00 - 15:00 — *viernes*

INFORMAZIOA — **PEGORA - EIBARKO UDALA** **www.eibar.eus** — *INFORMACIÓN*

## ARGAZKIGINTZA DIGITALA: LEHEN URRATSAK
## *INICIACIÓN A LA FOTOGRAFÍA DIGITAL*

**urriak *17 octubre* - azaroak *28 noviembre*   PORTALEA**




Argazkigintza dijitala ezagutuko da eta **oinarrizko kontzeptu eta teknikak** ikasiko dira, **baliabide informatikoak erabiliz**.

***El objetivo del curso es adquirir las nociones básicas, conocer diferentes técnicas y desarrollar la creatividad para disfrutar del ocio a través de la fotografía digita***l.

- *Duración:* ***30 horas teórico-prácticas***.
- *Destinatarios/as: Personas interesadas en general a partir de* ***16 años***.
- *Número de alumnos/as:* ***mínimo 5, máximo 16***.
- *Horario:* ***lunes y miércoles de 19:00 a 21,30 h***.
- *Precio****: 47 €*** *(personas empadronadas en Eibar)*
  ***79 €*** *(no empadronadas en Eibar)*.
- *Idioma:* ***castellano***.
- *Profesor:* ***José Valderrey - Juan Antonio Palacios***

Informazioa eta izenemateak **PEGORA** *Información e inscripciones*

**irailak 18 *septiembre* – urriak 5 *octubre***

*Ofimática general*
*Compras y ventas seguras por internet*
*Redes sociales*
*Aplicaciones Google para la gestión personal*
*Sistema Operativo Android*
*Ofimática general*
- **irailak 4 *septiembre***

*Google calendar. Gestiona mejor tu tiempo*
- **irailak 4 *septiembre*** ........................................09:00-11:00

*Aprende a navegar y enviar correos electrónicos*
- **irailak 4 *septiembre*** ........................................18:00-20:00

*Google drive. Almacena y comparte los documentos*
- **irailak 5 *septiembre*** ........................................09:00-11:00

*Facebook. La red social con más usuarios*
- **irailak 5 *septiembre*** ........................................16:00-18:00

*Smartphones y tablets*
- **irailak 7 *septiembre*** ........................................11:00-13:00

*Twitter*
- **irailak 11 *septiembre***

*Wikipedia. La enciclopedia digital colaborativa*
- **irailak 11 *septiembre*** ....................................16:00-18:00

*Aplicaciones Google para tus dispositivos*
- **irailak 18 *septiembre*** ....................................18:00-20:00

*Retoque fotográfico con GIMP*
- **irailak 19 *septiembre*** ....................................16:00-18:00

*Facebook*
*Pinterest*
- **irailak 25 *septiembre***

*LibreOffice Writer: crea tus propios docuentos de texto*
- **irailak 26 *septiembre*** ....................................18:00-20:00

*Google Maps. Planifica la mejor ruta*
- **irailak 29 *septiembre*** ....................................11:00-13:00

## JABETXE ESKOLA

**Emakumeentzako topaketa, prestakuntza eta hausnarketa gunea**
***Lugar de encuentro, formación y reflexión para mujeres***
prestakuntza eskaintza - *oferta formativa*

- ***CONOCIMIENTO BÁSICO DEL AUTOMÓVIL Y PEQUEÑOS ARREGLOS DEL ENTORNO***.
  ***18 y 25 de octubre, 8, 15, 22 y 29 de noviembre y 13 de diciembre***. ***miércoles***, *10:00-12:00*, ***ANDRETXEA***.
- ***PSICOLOGÍA PRÁCTICA PARA LA VIDA.***
  ***19 y 26 de octubre, 9, 16 y 23 de noviembre***. ***jueves***, *10:00-13:00*, ***PORTALEA***.
- ***CURSO DE JUEGO TEATRAL***.
  ***19 y 26 de octubre, 2, 9, 16 y 23 de noviembre y 14 y 21 de diciembre***. ***jueves***, *19:00-21:00* ***PORTALEA***.
- **EROTISMOA ETA AUTOEZAGUTZA**.
  **urriak 21 eta azaroak 11**. **larunbata**, 10:00 - 13:30 / 16:00 - 20:00 **PORTALEA**.
- ***AUTODEFENSA FEMINISTA***.
  ***4 y 5 de noviembre***. ***sábado*** *10:00 -13:30 / 16:30 - 20:30* - ***domingo*** *10:00-13:00* **PORTALEA**.

matrikulazio epea **irailak 29 *septiembre*** *plazo de matrícula*

**INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK - *INFORMACIÓN Y MATRÍCULAS***
**Andretxea**, Zezenbide kalea, 9 943700828 andretxea@gmail.com
**PEGORA www.eibar.eus**



**matrikulazioak** - *matrículas*

### DIBUJO UDAL ESKOLA
### *ESCUELA MUNICIPAL DE DIBUJO*

### ZERAMIKA UDAL ESKOLA
### *ESCUELA MUNICIPAL DE CERÁMICA*

**irailak 7ra arte - *hasta el 7 de septiembre*** **PEGORA**
Informazioa: PEGORA - Untzaga plaza - Tel . 010 - 943 708 400

### UDAL EUSKALTEGIA

**irailak 1 - 26 *septiembre***
informazioa **UDAL EUSKALTEGIA** Bista Eder, 10 Tel . 943 700 912

### AEK EUSKALTEGIA

**irailak 1 - 28 *septiembre***
informazioa **AEK EUSKALTEGIA** Sostoatarren, 1 Tel . 943 201 379

## GAZTERIA

### AFARIKETAN

**5 - 7 urteko haurrei zuzendua** (HH 3. mailakoak eta LH 1. eta 2. mailak)
***Para niños y niñas de 5 a 7 años*** *(3º de Enseñanza Preescolar y 1º y 2º de Enseñanza Primaria)*
**irailak 25 - 29 *septiembre*** 10:00 - 13:00 / 16:00 - 18:00 **Indianokua Gaztelekua** (Muzategi kalea, 3)
**irailak 26 - 26 *septiembre*** 16:00 - 18:00 **Arrateko Andra Mari ikastetxean - Amañako ludotekan**

### JAZINTO OLABEko LUDOTEKA

**5 -11 urteko haurrei zuzendua** (HH 3. mailatik LH 6. mailara)
***Para niños y niñas de 5 a 11 años*** *(de 3º de Enseñanza Preescolar a 6º de Enseñanza Primaria)*
**25 - 29 *septiembre*** 10:00 - 13:00 16:00 - 18:00 **Jazinto Olabeko ludoteka**

Informazioa: **ASTIXA Zezenbide 7 Tel. 943 206 231**
**www.astixa.eus kaixo@astixa.com gazteria@eibar.eus**

## LASTER... PRÓXIMAMENTE...



antzerkia - *teatro*
**EROSKI PARAÍSO** - **Chevere**
**urriak 20 *octubre*** 20:30 12 € - 8,5 € COLISEOAREN LAGUNA ***teatro* COLISEO antzokia**



dantza – *danza*
**LOREZ LORE** - **Cía Danza Fernando Hurtado**
**urriak 21 *octubre*** 17:00 5 € ***teatro* COLISEO antzokia**



kontzertua - *concierto*
**LINBOTARRAK** - **Asier Serrano**
**urriak 27 *octubre*** 20:30 5 € ***teatro* COLISEO antzokia**



dantza – *danza*
**LATENTE** - **Paula Quintana Danza Cía**
**azaroak 3 *noviembre*** 20:30 10 € - 7 € COLISEOAREN LAGUNA ***teatro* COLISEO antzokia**



antzerkia - *teatro*
**PREFIERO QUE SEAMOS AMIGOS** - **Pentación/ Lolita**
**azaroak 10 *noviembre*** 20:30 20 € - 14 € COLISEOAREN LAGUNA ***teatro* COLISEO antzokia**



musika – *música*
**DBSO** - **DBabesbatza**
**azaroak 17 *noviembre*** 20:30 10 € - 7 € COLISEOAREN LAGUNA ***teatro* COLISEO antzokia**



antzerkia - *teatro*
**JON BRAUN** - **Anita Maravillas**
**azaroak 18 *noviembre*** 17:00 5 € ***teatro* COLISEO antzokia**



musika – *música*
**ANDREA GONZÁLEZ** - **kitarra kontzerua - *concierto de guitarra***
**azaroak 24 *noviembre*** 20:30 8 € - 6 € COLISEOAREN LAGUNA ***teatro* COLISEO antzokia**



antzerkia - *teatro*
**TÍTERES TOLOSA**
**azaroak 25 *noviembre*** 17:00 5 € ***teatro* COLISEO antzokia**
**azaroak 27 *noviembre*** 15:00 **HEZKUNTZA ESPARRUA - *COMPLEJO EDUCATIVO***



antzerkia zirkoa – *teatro circo*
**RUDO** - **Cía Manuel Alcántara**
**abenduak 1 *diciembre*** 18:30 - 20:30 9 € - 6,5 € COLISEOAREN LAGUNA ***teatro* COLISEO antzokia**



antzerkia - *teatro*
**IDIOT SHOW** - **Ados teatro**
**abenduak 14 *diciembre*** 20:30 8 €- 6 € COLISEOAREN LAGUNA ***teatro* COLISEO antzokia**

gluglu todosonrisas

antzerkia - *teatro*
**ALIZIA LURRALDE MIRESGARRIAN** - **Gluglu**
**abenduak 26 *diciembre*** 17:00 5 € ***teatro* COLISEO antzokia**



antzerkia - *teatro*
**GU** - **Cía Borobil**
**abenduak 29 *diciembre*** 17:00 5 € ***teatro* COLISEO antzokia**

**Aldez aurreko salmenta** ***Venta anticipada***
astelehena eta ostirala 17:30-19:30 *lunes y viernes*

**www.kutxabank.es**

kutxabank

## EIBARKO UDALA www.eibar.eus *AYUNTAMIENTO DE EIBAR*

**PEGORA Herritarren zerbitzurako bulegoa / *Oficina de servicio a la ciudadanía***
Untzaga Plaza, 1 Tel: 010 / 943 708 400 - pegora@eibar.eus

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 8:30 - 13:30 | *lunes - viernes* |

## PORTALEA
Bista Eder, 10 tel. 943 708 439 www.eibar.eus/eu/kultura kultura@eibar.eus

**asteburuetan eta irailak 8, itxita** ***cerrado los fines de semana y el 8 de septiembre***

**irailak 1 - 7 *septiembre***

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 9:00 - 20:30 | *lunes - viernes* |

**irailak 11 - 30 *septiembre***

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 9:00 - 21:30 | *lunes - viernes* |

**ERAKUSKETA ARETOA** ***SALA DE EXPOSICIONES***

| | | |
|---|---|---|
| asteartea - igandea | 18:30 - 20:30 | *martes - domingo* |

**JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA** tel. 943 708 437 liburutegia@eibar.eus
liburutegiak.blog.euskadi.eus/eibar

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 9:00 - 13:30 / 16:00 - 20:30 | *lunes - viernes* |

**ARMAGINTZAREN MUSEOA** tel. 943 708446 ***MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA***
www.armia-eibar.eus museoa@eibar.eus

| | | |
|---|---|---|
| asteartea - ostirala | 16:00 - 20:00 | *martes - viernes* |

## *teatro* COLISEO antzokia
Merkatu kalea, 2 tel. 943 206 342 kultura@eibar.eus

**ZINEMA - *CINE***
**17:00etako emanaldia,**
ordubete hasi baino lehenago
***Sesión de las 17:00 horas,***
*una hora antes del inicio de la sesión*

**Gainontzeko emanaldiak,**
ordu erdi hasi baino lehenago
***Resto de sesiones,***
*media hora antes del inicio de cada sesión*

**BESTE IKUSKIZUNAK - *OTROS ESPECTÁCULOS***
**Salmenta arrunta,** ordubete hasi baino lehenago
***Venta ordinaria,*** *una hora antes del inicio.*

**Aldez aurreko salmenta,**
astelehena eta ostirala 17:30 - 19:30 *lunes y viernes*

**www.kutxabank.es**

## GERRA ZIBILEKO EIBARKO FRONTEAREN INTERPRETAZIO ZENTROA
## CENTRO DE INTERPRETACIÓN DEL FRENTE DE LA GUERRA CIVIL DE EIBAR
Barrio Arrate Auzoa, 2 944 029 099 albergues@ateri.net www.gerrazibilaeibarren.eus

| | | |
|---|---|---|
| igandeak | 11:30 – 13:30 | *domingos* |

bisita gidatuak, eskariak aldez aurretik – *visitas guiadas previa reserva*

## INDIANOKUA GAZTELEKUA
Muzategi, 3 gazteria@eibar.eus eibarkogaztelekua.wordpress.com

**irailak 1 - 8 *septiembre*** **itxita - *cerrado***

| | | |
|---|---|---|
| asteartea - osteguna | 18:00 - 20:00 | *martes - jueves* |
| ostirala | 16:30 - 21:00 | *viernes* |
| larunbata | 17:00 - 21:00 | *sábados* |
| igande eta jai-egunak | 17:00 - 20:30 | *domingos y festivos* |

## ANDRETXEA Eibarko Emakumeen Etxea
Zezenbide, 9 tel. 943 700 828 andretxea@gmail.com

**http://andretxea.kzcomunidades.net** **http://facebook.com/andretxea.eibar**

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 8:00 - 14:00 | *lunes - viernes* |

## ARRATE KULTUR ELKARTEA
Zuloagatarren, 3 tel. 943 202 299 arratekultu@gmail.com

**TOPALEKU**

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 19:00 - 21:00 | *lunes - viernes* |
| larunbata, igande eta jai-egunak | 12:00 - 14:00 / 19:00 - 21:00 | *sábados, domingos y festivos* |

**BULEGOA - OFICINA**

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - asteartea - osteguna | 10:30 - 12:30 | *lunes - martes - jueves* |
| asteazkena | 17:00 - 19:00 | *miércoles* |

## HEZKUNTZA ESPARRUA/*COMPLEJO EDUCATIVO*
Otaola Hiribidea, 29 tel. 943 208 444

www.eibarres.net

## Kz GUNEA
PORTALEA. Bista Eder, 10 tel. 943 023 637

www.kzgunea.net www.facebook.com/kzguneaeibar

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00 | *lunes - viernes* |

Eibarko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskadiko Antzoki Sarearen laguntzarekin antolatzen ditu musika eta antzerki ikuskizunak.
*Los espectáculos de música y teatro organizados por el Ayuntamiento de Eibar cuentan con la colaboración de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de SAREA-Red Vasca de Teatros.*
argitaratzailea: Eibarko Udala / koordinatzailea: Kultura Saila
idatziak, diseinu eta maketazioa: ARBI Edición / inprimategia: GERTU / Tirada: 7.000 ale D.L.:SS-1192-2012

# PEDALÓ

**Juan Palacios**

**irailak 21 *septiembre*** 20:30 5 € ***teatro* COLISEO antzokia**

2016 71 min. Dokumentala Gazteleraz - Castellano




**Eibartar zuzendariaren filmaren aurkezpena, Donostiako Zinemaldia**ren azken edizioko **Irizar Euskal Zinemarako Saria**

***Presentación de la película del director eibarrés, Premio Irizar al Cine Vasco*** *en la última edición del* ***Zinemaldia de Donostia.***

**"… Euskal kostaldetik pedaloian doazen hiru lagunen irudia burugabekeria iruditzen zitzaidan, baina era berean baita erakargarria ere. Nire barnean ere hots egiten zuen bizitzako behar esplikagaitz bati erantzungo balio bezala. Behar hori da filmaren bidez eratu nahi nuena.**

**Pelikula filmatzea esperientzia bizia eta gorabeheratsua izan zen. Hasieratik ugariak izan ziren istripu eta ezusteak, festak, ajeak, xaman bat, hileta bat…. Une batzuetan erabateko absurdoa iruditzen zitzaidan nire udako oporrak ematea pedaloian zihoazen hiru lagunen atzetik. Hala ere, zerbaitek bultzatzen zituen lagunak pedalei eragitera eta ni grabatzen jarraitzera. Egunkari batean hartu nituen gertatzen zenaren gaineko oharrak.**

**Filmatzen amaitu eta ohar haiek berriz ere irakurri nituenean konturatu nintzen itsasoan flotatzen ari den pedaloi baten irudiaren oso bestelako karga emozionala zeukatela oharrok. Hala ere, nire kamerak erregistratu zuenaren eta benetan bizi izandakoaren arteko desfasean erakarri ninduen zerbait hunkigarria eta poetikoa aurkitu nuen. Ondorioz, erabaki nuen narrazio bat egitea, non hiru "marinel" horien balentria haluzinatua batera existitzen den tarte ezberdinetan kontatzen ari denaren bizitza pertsonalarekin.**

**Pelikula hau egitea nire zinema-eskola partikularra izan da. Nik neuk ekoitzi, idatzi, zuzendu eta muntatu dut. Nireak dira argazkia, soinua, postprodukzioa eta baita soinu bandaren parte bat ere. Oso produkzio punka izan zen, oso do it yourself. Nahiko nuke esan sinesmen (a)politiko batengatik egin nuela horrela, bihurrikeria ekintza gisa, ekoizpen tradizionalaren sistemaren aurka egiteagatik. Baina ez, horrela egin nuen ez neukalako beste aukerarik. …"**

**Juan Palacios**